

## **2008KO LAN-POLTSAK**

# **HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOKO TEKNIKARIAK**

## **1. ARIKETA**

**2008/04/25**

- 1 2001EKO UDAL BIZTANLERIAREN ZENTSUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN:**
- 1a) 2.543.321 lagun bizi dira.
  - 1b) 2.082.587 lagun bizi dira.
  - 1c) 1.758.783 lagun bizi dira.
  - 1d) 2.750.625 lagun bizi dira.
- 2 EUSKARAREN JARRAIPENA III DELAKOAREN ARABERA, AITA ETA AMA EUSKALDUN BERRIAK DIREN KASUETAN:**
- 2a) Lau bikotetik batek gaur egun euskara lehen hizkuntza gisa transmititu die bere seme-alabei.
  - 2b) Hiru bikotetik batek gaur egun euskara lehen hizkuntza gisa transmititu die bere seme-alabei.
  - 2c) Bost bikotetik batek gaur egun euskara lehen hizkuntza gisa transmititu die bere seme-alabei.
  - 2d) Bi bikotetik batek gaur egun euskara lehen hizkuntza gisa transmititu die bere seme-alabei.
- 3 2003-2007 PLANGINTZALDIAREN BARRUAN, EUSKAL HERRI-ADMINISTRAZIOEK EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK ONARTUKO DITUZTE:**
- 3a) Plangintzaldiaren bost urteko epean.
  - 3b) Lehenengo urtean.
  - 3c) Ez da beharrezkoa.
  - 3d) Hirugarren urterako.
- 4 100 LANGILETIK GORAKO ENPRESETAKO EUSKARAREN ERABILERAN ERAGINIK HANDIENA DUEN FAKTOREA DA...**
- 4a) Jarduera sektorea.
  - 4b) Merkatu geografikoa.
  - 4c) Produktuen edo zerbitzuen hartzailea.
  - 4d) Enpresa dagoen guneko soziolinguistikoa.
- 5 EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ARABERA, ZEIN DIRA EUSKARAREN ERABILERAN GEHIEN ERAGITEN DUTEN ARRAZIOIAK:**
- 5a) Funtsean, hiztunok euskaraz eta erdaraz egiteko dugun gaitasunaren edo erraztasunaren araberakoa izango da euskararen erabilera ere.
  - 5b) Hiztunok euskaraz eta erdaraz egiteko dugun gaitasuna edo erraztasuna batetik, eta inguruan dugun harreman-sarea euskalduna izatea bestetik.
  - 5c) Funtsean, inguruan dugun harreman-sarea euskalduna izatea edo ez izatea da euskararen erabileran gehien eragiten duen faktorea, hiztunaren euskara-gaitasuna bigarren mailakoa izanik.
  - 5d) Hiru arrazoi dira nagusiak: hiztunaren euskara-gaitasuna, inguruko harreman-sarea euskalduna izatea, eta lurralde horretako administrazioak euskararen aldeko hizkuntza-politika bultzatzea.

**6 117/2001 DEKRETUAK EAE-KO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO NEURRIAK ARAUTZEN DITU...**

- 6a) Bi alorretan: hizkuntza eskakizunak nola jarri eta gaikuntza-ikastaroak nola antolatu.
- 6b) Hiru alorretan: hizkuntza eskakizunak nola jarri, gaikuntza-ikastaroak nola antolatu eta euskararen erabilera sustatzeko egin beharreko programak.
- 6c) Euskararen normalkuntzarako beharrezko diren alor guztietan.
- 6d) Lau alorretan: hizkuntza eskakizunak nola jarri, gaikuntza-ikastaroak nola antolatu, euskararen erabilera sustatzeko egin beharreko programak eta itzulpenak egiteko irizpideak nola txertatu.

**7 ZER DA IRALE?**

- 7a) Irakasleak euskalduntzeko programa bat
- 7b) Funtzionarioen artean irakurzaletasuna indartzeko programa bat
- 7c) Euskalduntzeko kurrikuluaren osagaietako bat, irakurmenari dagokiona
- 7d) Ikastetxeetako irakasleek 2. hizkuntza-eskakizuna lortzen dutenean egiten duten egokitzapen-ikastaroaren izena

**8 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, ZEIN ERAKUNDEK EGIN DEZAKE HERRI-ADMINISTRAZIOKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIA?**

- 8a) IVAPek bakarrik
- 8b) IVAPek ez ezik, gainerako administrazio guztiek ere bai
- 8c) 86/1997 Dekretuaren esparru barruko edozein administrazio
- 8d) IVAPek, foru-aldundiek eta udalek bakarrik

**9 HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN, ZER DA AUTOIKASKUNTZA?**

- 9a) Ikasleak Benetan programaren bitartez ikasteari deitzen zaio autoikaskuntza
- 9b) Ikasleak bere ikasprozesua gidatzeko duen ahalmenari deitzen zaio autoikaskuntza, batez ere hasiera-mailei dagokienez
- 9c) Norbere kontura ikasteari deitzen zaio autoikaskuntza, metodo, baliabide eta material desberdinak erabiliz
- 9d) Ordenagailu (internet) bidez ikasteari deitzen zaio autoikaskuntza.

**10 ZER DA SOZIOLEKTO BAT?**

- 10a) Toki jakin batean erabiltzen den hizkuntza-aldiera
- 10b) Historiako garai jakin batean gizarteak erabiltzen duen hizkuntza-aldiera
- 10c) Giza talde jakin batek erabiltzen duen hizkuntza-aldiera
- 10d) Hiztun bakoitzak erabiltzen duen hizkuntza-aldiera

**11 67/2003 DEKRETUAREN ARABERA, LEHEN MAILAKO LEHENTASUNA HONAKO ESPARRUAK DU:**

- 11a) Atentzio espezializatuak
- 11b) Zerbitzu administratiboak
- 11c) Zerbitzu orokorrak
- 11d) Lehen mailako atentzioak

**12 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, GAZTELERA ETA EUSKARARA:**

- 12a) Biak jakiteko betebeharra dago.
- 12b) Biak ofizialtasun berdina dute.
- 12c) Biak ezagutzeko betebeharra dago.
- 12d) Biak erabiltzeko betebeharra dago.

**13 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANPOSTU-ZERRENDETAN NAHITAEZ AGERTU BEHARREKO BERARIAZKOTASUNEN ARTEAN SARTU BEHAR DIRA:**

- 13a) Euskararen normalkuntza-plana.
- 13b) Euskara derrigorrez bete beharreko indizea.
- 13c) Hizkuntza-eskakizuna eta, hala behar izanez gero, bere derrigortasun-data.
- 13d) Hizkuntza-eskakizuna esleitu zaien lanpostu ororen derrigortasun-data.

**14 IRAKASPOSTUETARAKO HE1 ETA HE2 HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ARAUTZEAN (47/1993 DEKRETUAN) BI ESKAKIZUN-MAILA DEFINITZEN DIRA.**

- 14a) HE1 euskara asignatura moduan irakatsi behar duten irakasleen irakaspostuei ezarriko zaie. HE2, aldiz, klaseak euskaraz ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie.
- 14b) HE1 ez euskara eta ez euskaraz irakasten duten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie. HE2 euskara edo euskaraz irakasten duten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie.
- 14c) HE1, A eta B ereduko lanpostuak beteko dituzten irakaspostuei ezarriko zaie eta HE2 D ereduko lanpostuak beteko dituzten irakaspostuei ezarriko zaie.
- 14d) HE1, A ereduko lanpostuak beteko dituzten irakaspostuei ezarriko zaie eta HE2 B eta D ereduko lanpostuak beteko dituzten irakaspostuei ezarriko zaie.

**15 86/1997 DEKRETUAK FINKATZEN DUEN DERRIGORREZ BETE BEHARREKO INDIZEA...**

- 15a) Lanpostuaren ezaugarri bat da
- 15b) Administrazio bakoitzaren bereizgarri bat da
- 15c) Administrazio eta plangintzaldi bakoitzarekin aldatzen da
- 15d) Ez da aldatzen plangintzaldi batetik bestera

**16 ERTZAINZAKO LANPOSTUEK EUREN EUSKARAZKO JARDUERAN HIZKUNTZA-TREBETASUN JASOAK EDUKITZEA GALDATZEN DUTENEAN:**

- 16a) 2. hizkuntza-eskakizuna ezarriko zaie.
- 16b) 3. hizkuntza-eskakizuna ezarriko zaie.
- 16c) 4. hizkuntza-eskakizuna ezarriko zaie.
- 16d) Teknikari-gaituaren hizkuntza-eskakizuna ezarriko zaie.

**17 EGA-REN BALIOKIDETZAK FINKATZEN DITUEN 263/1998 DEKRETUAREN ARABERA, EGAREN BALIOKIDEA DA**

- 17a) EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal gaitasun-maila
- 17b) EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal gaitasun-maila, 1982tik aurrera emana
- 17c) Hizkuntza Eskola Ofizialetako euskal gaitasun-maila
- 17d) Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialetako gaitasun-mailak

- 18 2001EKO BIZTANLERIAREN ZENTSUAREN ARABERA, GIPUZKOAN, ELEBIDUNAK...**
- 18a) %34,3 dira.  
18b) %40 dira.  
18c) %49,8 dira.  
18d) %51,5 dira.
- 19 EUSKARAREN JARRAIPENA III DELAKOAREN ARABERA, EAE-N EUSKARA LEHEN HIZKUNTZA BAKAR DUTEN PERTSONEN PORTZENTAJEA:**
- 19a) Pixka bat beheratu da, populazio osoaren baitan.  
19b) Bere horretan mantentzen da, populazio osoaren baitan.  
19c) Nabarmen egin du gora, populazio osoaren baitan.  
19d) Zerbait egin du gora populazio osoaren baitan, baina ez espero zitekeena.
- 20 AEBEMET METODOLOGIAREN EZAUGARRIEN ARTEAN, EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANEAN HONAKO HAU AIPATZEN DA, BESTEAK BESTE**
- 20a) Baliabideen aurreikuspena eta kuantifikazioa hasieratik egitea.  
20b) Egoera soziolinguistiko guztietarako lehentasun-maila bera ezartzea.  
20c) Bereziki 2HE eta 3HE lortzeko eskolak antolatu eta martxan jartzea.  
20d) Hasieratik helburu zehatzak, lorgarriak eta neurgarriak jartzea.
- 21 LAN-MUNDUARI DAGOKIONEZ ERABILERA OSO TXIKIA BADA ERE...**
- 21a) Euskararen erabileraren gorakada handiagoa izan da sektore sozio-ekonomikoan gainerako erabilera-eremuetan baino.  
21b) Euskararen erabileraren gorakada askoz ere handiagoa izan da sektore sozio-ekonomikoan gainerako erabilera-eremuetan baino.  
21c) Berdina da sektore sozio-ekonomikoan eta gainerako erabilera-eremuetan izan den euskararen erabileraren gorakada.  
21d) Lauzpabost urteetan gainerako erabilera-eremuetako euskararen erabilera maila bera lortuko da.
- 22 ZEIN DIRA EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAN ESTRATEGIKOTZAT HARTZEN DIREN HELBURUAK:**
- 22a) Hiru: euskara ondorengoetaratzea, euskara erabiltzea eta euskara elikatzea.  
22b) Bi: euskara ondorengoetaratzea eta euskara erabiltzea.  
22c) Bakarra: euskara erabiltzea.  
22d) Lau: euskara ondorengoetaratzea, euskara erabiltzea, zerbitzuak euskaraz eskaintzea eta euskara elikatzea.
- 23 117/2001 DEKRETUAK EAE-KO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO AGENTE JUDIZIALEI:**
- 23a) Hirugarren hizkuntza-eskakizuna ezartzen die.  
23b) Laugarren hizkuntza-eskakizuna ezartzen die.  
23c) Bigarren hizkuntza-eskakizuna ezartzen die.  
23d) Lehenengo hizkuntza-eskakizuna ezartzen die.

**24 HELDUEN HIZKUNTZA-IRAKASKUNTZAN, ZER DA IKASLEAREN AUTONOMIA?**

- 24a) Ikasle batek ezin duela hizkuntza bat ikasi ikasprozesua gidatuko dion irakasle edo monitorerik gabe.
- 24b) Ikasprozesua arrakastatsua izan dadin, ikasleak autonomia eduki behar duela nahi duena ikasteko, pertsona heldua baita
- 24c) Ikasleak bere ikasprozesuaren ardura eta gidaritzza bere gain hartzen duela irakaslearekiko dependentsia gairidituz
- 24d) Ikasleak bakarrik ikasi behar duela, ikastaldearen eta irakaslearen interferentziarik gabe

**25 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, ZEIN ERAKUNDERI DAGOKIO HERRI-ADMINISTRAZIOKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN PROBEN EDUKIA ETA FORMA FINKATZEA?**

- 25a) HABEri
- 25b) IVAPi
- 25c) HPSri
- 25d) EHUri

**26 JANE WILLIS-EK ATAZETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZARAKO LAN-MARKOA ZEHAZTERAKOAN HIZKUNTZA IKASTEKO LAU BALDINTZA BEREIZTEN DITU: HIRU BEHAR-BEHARREZKOAK ETA BAT KOMENIGARRIA. ZEIN DA HORI?**

- 26a) Aurkeztapena
- 26b) Motibazioa
- 26c) Instrukzioa
- 26d) Erabilera

**27 ZER DA ADMINISTRAZIOKO HIZKERA?**

- 27a) Teknolekto bat
- 27b) Idiolekto bat
- 27c) Hizkera sinbolikoetariko bat
- 27d) Hizkera juridikoaren oinarria

**28 67/2003 DEKRETUAREN ARABERA, OSAKIDETZAKO IDATZIZKO KOMUNIKAZIOARI DAGOKIONEZ,**

- 28a) Osasun zentru bakoitzean ezarriko dira errotulazioan erabiliko diren hizkuntza irizpideak
- 28b) Osakidetza barruko errotulazioan euskara erabiliko da eta kanpoko errotulazioan gaztelania
- 28c) Errotulazioan egoera soziolinguistikoaren arabera erabiliko dira hizkuntza ofizialak
- 28d) Hizkuntza ofizial biak erabiliko dira Osakidetza barruko eta kanpoko errotulazioan

**29 EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BEREZKO HIZKUNTZA:**

- 29a) Gaztelera da.
- 29b) Gaztelera eta euskara dira.
- 29c) Euskara da
- 29d) Toki batzuetan bakarrik gaztelera da, beste batzuetan euskara eta beste batzuetan biak.

- 30 HUTSUNEA BETE EZAZU: EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANPOSTU BAKOITZARI, (...) ZEHAZTUTAKO IRIZPIDEEN ARABERA ESLEITUKO ZAIO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA.**
- 30a) Eusko Jaurlaritzak.  
30b) Foru Aldundiak.  
30c) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.  
30d) Euskal Administrazio Publiko bakoitzak.
- 31 IRAKASPOSTUETARAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK FINKATZEN DITUEN DEKRETUAN (47/1993), EUSKARAREN EZAGUTZA-MAILARI DAGOKIONEZ ESAN ONDOKO LAU ESALDIOTAN ZEIN DEN HE1 HOBEKIEN DESKRIBATZEN DUENA:**
- 31a) Euskaraz komunikatzeko adina ez jakin arren, 200 bat hitzeko hiztegia du eta kortesiazko oinarritzko formulak menderatzen ditu.  
31b) Bere asignatura edo alorreko gaiak ikasleei euskaraz irakasteko kapaz da.  
31c) Ikasleekin, beste irakasleekin, gurasoekin eta hezkuntza-administrazioari langileekin hizkuntza-maila egokian komunikatzeko gai da.  
31d) Ikasleekin, beste irakasleekin, gurasoekin eta hezkuntza-administrazioari langileekin bai hizkuntza-maila arruntean eta bai teknikoan komunikatzeko gai da.
- 32 “EAE-KO HERRI-ADMINISTRAZIOKO LANPOSTU BAT BETETZEKO EZINBESTEKOA DA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEA”. 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, HAU HORRELA DA...**
- 32a) Lanpostuaren derrigortasun-eguna igaro denean bakarrik  
32b) Beti  
32c) Bakarrik lanpostu horrek derrigortasun-eguna ezarrita badu  
32d) Lanpostuak perfila ezarrita badu, nahiz eta derrigortasun-egunik ez izan
- 33 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN DERRIGORTASUN-DATEK ERTZAINZAKO LANPOSTU GUZTIEK HARTZEN EZ DITUZTEN BITARTEAN, KONTUAN HARTUKO DA:**
- 33a) Zein herrialdetan dagoen kokaturik Ertzaintzaren unitatea.  
33b) Zeintzuk diren Ertzaintzaren unitate bakoitzaren jarduera-eremuan bete beharreko hizkuntza-indizeak.  
33c) Zein den ertzainaren maila, hots, ofiziala, ofizialordea edo agentea den.  
33d) Zein promoziotako ertzaina den, izan ere promozioa berriagoa den heinean, derrigortasun-data edukitzeko aukera gehiago baitago.
- 34 EGA-REN BALIOKIDETZAK FINKATZEN DITUEN 263/1998 DEKRETUAREN ARABERA, EGA ETA EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO 3. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
- 34a) Baliokideak dira 1982tik aurrera  
34b) Baliokideak dira 3. Hizkuntza Eskakizuna azterketa bidez lortua denean  
34c) Baliokideak dira Egiaztapenen Erregistroan jasota daudenean  
34d) Baliokideak dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ziurtatzen duenean

**35 2001EKO BIZTANLERIAREN ZENTSUAREN ARABERA, ARABAN, ELEBIDUNAK...**

- 35a) %20,2 dira
- 35b) %10,6 dira
- 35c) %24,1 dira
- 35d) %16,0 dira

**36 EUSKARAREN JARRAIPENA III DELAKOAREN ARABERA, EAE-N 16 ETA 24 URTE DITUZTENEN ARTEAN ELEBITASUNAK IZANDAKO AURRERAPENA UKAEZINA DA:**

- 36a) Lau pertsonatik bat elebiduna da.
- 36b) Hiru pertsonatik bat elebiduna da.
- 36c) Bi pertsonatik bat elebiduna da.
- 36d) Bost pertsonatik bi elebidunak dira.

**37 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANEAN, ZEINTZUK DIRA ATAL ELEBIDUNAK IZENDATZEKO EZARTZEN DIREN BI BALDINTZAK ?**

- 37a) Atalburuak eta lanpostu denek edo ia denek derrigortasun-data izatea eta langile denek edo ia denek dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
- 37b) Atalburuak eta lanpostuen %50ak derrigortasun-data izatea eta langileen %50ak dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
- 37c) Egiaztatze-mailak aurreikustea eta salbuetsiak kontuan izatea.
- 37d) Atalaren eragin biderkatzailea eta langile finkoen proportzioa.

**38 EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ARABERA, NOLA LORTZEN DA EUSKARA ONDORENGOETARATZEA:**

- 38a) Familiaren eta eskolaren bidez.
- 38b) Hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz.
- 38c) Familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz.
- 38d) Familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez.

**39 117/2001 DEKRETUAK EAE-KO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN EREMUAN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EZARTZEKO PROZESUA:**

- 39a) Hamar urteko plangintzaldietan banatuko da.
- 39b) Bost urteko plangintzaldietan banatuko da.
- 39c) Bi urteko plangintzaldietan banatuko da.
- 39d) Lau urteko plangintzaldietan banatuko da.

**40 HELDUEN EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO DISEINATUTAKO KURRIKULU BERRIAREN ARABERA, ZENBAT MAILA DITU EGARAINOKO EUSKALDUNTZE PROZESUAK?**

- 40a) Hiru
- 40b) Lau
- 40c) Bi
- 40d) Hamabi



**41 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOKO 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA...**

- 41a) Alfabetatze I mailaren baliokide da
- 41b) Euskalduntze-programaren 6. urratsarekin baliokidetuta dago
- 41c) Ez dago baliokidetuta inongo agirirekin
- 41d) Hezkuntza-sistemako 2HEaren parekoa da

**42 NORK IDATZI DITU "THE LEXICAL APPROACH" ETA "IMPLEMENTING THE LEXICAL APPROACH" LIBURU ENTZUTETSUAK?**

- 42a) David Nunan-ek
- 42b) Paul Boogards-ek
- 42c) Michael Lewis-ek
- 42d) Ellen Bialystok-ek

**43 ZEIN DA ADMINISTRAZIOKO HIZKERAREN OINARRIA?**

- 43a) Literatur tradizioa
- 43b) Hizkuntza estandarra
- 43c) Herri-hizkera
- 43d) Akademiaren arauak

**44 67/2003 DEKRETUAREN ARABERA, OSAKIDETZAKO AHOZKO KOMUNIKAZIOARI DAGOKIONEZ,**

- 44a) Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, orden horretan
- 44b) Herritar batek euskaraz jotzen duenean Osakidetzako langile batengana, langile horrek euskaraz erantzun beharko dio kasu guztietan
- 44c) Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak osasun zentrua kokatuta dagoen egoera soziolinguistikoaren arabera emango dira
- 44d) Langileak, dagokion hizkuntza-eskakizuna badu, beste langile baten laguntza eskatuko du atentzio sanitarioaren jarduera normalari enbarazu egiten ez badio.

**45 EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN:**

- 45a) Herritarrek Administrazioa nahi duten hizkuntzan zuzentzeko eskubidea dute
- 45b) Herritarrek, Funtzionarioak badira, gainontzeko herritarrengana nahi duten hizkuntzan zuzentzeko eskubidea dute.
- 45c) Herritarrek edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea dute.
- 45d) Herritarrek, Estatuko Administrazioako Erroldetan dokumentuak euskaraz inskribatzeko eskubidea dute.

**46 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), KASUAN KASU BEHARREZKOA DEN EUSKARAREN EZAGUTZA BALORATZEA XEDE DUTEN PROBEI DAGOKIENEZ:**

- 46a) Euskal Administrazio Publiko orotan berdinak izango dira aipatu probak.
- 46b) Euskal Administrazio Publiko orotan ez dira berdinak izango aipatu probak.
- 46c) Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak zehaztuko du aipatu proben edukia eta forma.
- 46d) Euskal Administrazio Publikoen artean bereizketak egin daitezke, errealitate soziolinguistikoaren arabera.

- 47 EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUAN DIHARDUEN IRAKASKUNTZA-LANGILEGOAREN EUSKARAREN EZAGUERA AINTZAT HARTZEA XEDE DUTEN PROBEN EDUKIA ETA FORMA ZEHAZTUKO DITU:**
- 47a) Hezkuntza Administrazioak.
  - 47b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
  - 47c) Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak.
  - 47d) Dagokion ikastetxeko zuzendaritzak.
- 48 86/1997 DEKRETUAK FINKATZEN DUENAREN ARABERA, ZEIN DA TREBETASUN GUZTIETAN MAILA ERTAINA BERMATZEN DUEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA?**
- 48a) Bigarrena
  - 48b) Lehenengoa
  - 48c) Hirugarrena
  - 48d) Aurrekoetatik bat ere ez
- 49 ERTZAINZAKO FUNTZIONARIO IZATEKO SARRERA-PROZESUAN, HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DERRIGORREZKOA DENEAN:**
- 49a) Prestakuntza-ikastaroa amaitu ondoren egiaztatu egin beharko da.
  - 49b) Hautapen-probetan egiaztatu egin beharko da.
  - 49c) Praktika aldiaren epea amaitu ostean egiaztatu egin beharko da.
  - 49d) Lanpostuaren deialdia argitaratzean egiaztatu egin beharko da.
- 50 EGA-REN BALIOKIDETZAK FINKATZEN DITUEN 263/1998 DEKRETUAN**
- 50a) EGA eta irakasleen Hizkuntz Eskakizunen arteko baliokidetzak arautzen dira
  - 50b) EGA eta irakasleen 2. Hizkuntz Eskakizunaren arteko baliokidetzak arautzen dira
  - 50c) EGA eta irakasleen Hizkuntz Eskakizunen arteko baliokidetzak proposatzen dira
  - 50d) EGA eta EAEko Administrazio Orokorreko Hizkuntz Eskakizun guztien arteko baliokidetzak arautzen dira
- 51 1991 ETA 2001 URTEEN ARTEAN...**
- 51a) 200.000 euskaldun irabazi dira
  - 51b) 90.000 euskaldun irabazi dira
  - 51c) 125.000 euskaldun irabazi dira
  - 51d) 75.000 euskaldun irabazi dira
- 52 EUSKARAREN JARRAIPENA III DELAKOAREN ARABERA, ELEBIDUNEN ARTEAN MULTZO HAUEK BEREIZ DAITEZKE:**
- 52a) Euskal elebidunak, erdal elebidunak eta euskaldun aktiboak.
  - 52b) Erdaldun aktiboak, euskal elebidunak eta erdaldun orekatuak.
  - 52c) Erdaldun aktiboak, euskaldun aktiboak eta elebidun orekatuak.
  - 52d) Elebidun orekatuak, euskal elebidunak eta erdal elebidunak.

**53 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANEAN, ATAL BAT "LG" BEZALA IZENDATZEAK ZER ESAN NAHI DU ?**

- 53a) Hirugarren plangintzaldi honetan lehentasun guztia duen atala dela.
- 53b) Lehentasunezkoa dela baina gabeziak dituela izaeraren aldetik.
- 53c) Ez dela lehentasunezkoa, atal horretan oraindik hizkuntza-gaitasuna garatzen ari delako.
- 53d) Lehentasun gabea dela, izaeragatik eta baldintza egokirik ez izateagatik.

**54 EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ARABERA, EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, ENPRESA-MUNDUAN:**

- 54a) Kanpaina erraldoiak antolatu behar dira.
- 54b) Udalerri euskaldunetako enpresariekin lan egin behar da batik bat.
- 54c) Bana-banako sentiberatze jardunak egin behar dira enpresa publikoekin, profesionalen elkargoekin, enpresariekin, etab.ekin.
- 54d) Gune euskaldunenetan kanpaina orokorrak antolatu behar dira, eragin biderkatzailea izan dezaten.

**55 EUSKALTEGI BATENTZAKO ZER DA AOI?**

- 55a) Atazetan Oinarritutako Irakaskuntza
- 55b) Alfabetatzeko Oinarrizko Ikaslea
- 55c) Akatsen Osagarritzako Irakaskuntza
- 55d) Autoikaskuntzan Osatutako Irakaskuntza

**56 86/1997 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, 4. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DUEN LANPOSTU BAT BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAN, IZANGAIETATIK INORK 4. HE-KO BALDINTZA HORI BETETZEN EZ BADU...**

- 56a) Beste deialdi bat egin behar da eta azterketa errepikatu
- 56b) Prozesua bertan behera geratzen da
- 56c) Lanpostuari perfila aldatzen zaio, laugarrenetik hirugarrenera
- 56d) Lanpostua betetzeko baino ez bada ere, nahikoa izango da 3.HE gainditzea

**57 JATORRI EZBERDINETAKO HIZTUNEK, HIZKUNTZEN UKIPEN-EGOERAN, ELKARREKIN KOMUNIKATZEKO SORTU ETA GARATZEN DUTEN HIZKUNTZARI ESATEN ZAIO...**

- 57a) Tarteko hizkuntza
- 57b) Pidgin
- 57c) Patois
- 57d) Kreola (Creole)

**58 ONDORENGOETATIK, ZEIN LOTUKO ZENUKE HIZKERA ARGIA ZABALTZEAREKIN?**

- 58a) Plain English Campaign
- 58b) European Bureau for Lesser Used Languages
- 58c) National Consumer Organization
- 58d) Clear English Council

- 59 EUSKARARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982), EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ERREGISTRO BATEAN DOKUMENTU BAT INSKRIBATU NAHI DENEAN ETA AIPATU ERREGISTROA EZ BADAGO HEMENGO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MENPE:**
- 59a) Inskripzioa gazteleraz egin daiteke, inskribatu behar den dokumentua euskaraz badago ere.
  - 59b) Inskripzioa euskaraz egingo da inskribatu behar den dokumentua euskaraz dagoenean.
  - 59c) Ez dago argi zer gerta daitekeen.
  - 59d) Interesdunak erabakitako hizkuntzan inskribatuko du aipatu dokumentua.
- 60 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), HAUTATZE-PROBETAN EUSKARAREN EZAGUTZA MERITU GISA AINTZAT HARTZEN DENEAN, BALORAZIOA HONELA EGINGO DA:**
- 60a) Errealitate Soziolinguistikoaren arabera eta salbuespenez, lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunen artean nagusitzen denaren arabera.
  - 60b) Karrerako funtzionarioen lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunen artean nagusitzen denaren arabera, baita errealitate soziolinguistikoaren arabera ere.
  - 60c) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak nahiz Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak ezarritako irizpideen arabera.
  - 60d) Plazari dagokion Kidego edo Eskalak bete ditzakeen lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunen artean nagusitzen denaren arabera.
- 61 IRAKASKUNTZA-LANPOSTUEI EZARGARRI ZAIZKIEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEI DAGOKIONEZ:**
- 61a) Bi dira aipatu hizkuntza-eskakizunak.
  - 61b) Lau dira aipatu hizkuntza-eskakizunak.
  - 61c) Aipatu hizkuntza-eskakizunak, ikastetxe nahiz irakaskuntza publikoa edo pribatua den arabera aldakorrek dira.
  - 61d) Derrigortasun-inguruabarren arabera, aipatu hizkuntza-eskakizunen kopurua aldakorra da.
- 62 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK DIRA:**
- 62a) Euren zereginak euskaraz burutzen dituztenak.
  - 62b) Euren zereginak gazteleraz burutzen dituztenak.
  - 62c) Euren zereginak euskaraz eta gazteleraz, batean zein bestean, betetzen dituztenak.
  - 62d) Gure legezko errealitatean ez dago halako administrazio-atalik.
- 63 ERTZAINZAREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBEN EDUKIA ETA FORMA BAT ETORRIKO DA:**
- 63a) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritakoarekin.
  - 63b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritakoarekin.
  - 63c) Barne Sailak ezarritakoarekin.
  - 63d) Hezkuntza Sailak ezarritakoarekin.
- 64 2001EKO BIZTANLERIAREN ZENTSUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BIZTANLEEN...**
- 64a) %20,3 dira elebidunak.
  - 64b) %12,8 dira elebidunak.
  - 64c) %29,8 dira elebidunak.
  - 64d) %32 dira elebidunak.

**65 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANEAN LAN-ORDUETAN HIZKUNTZA-  
PRESTAKUNTZARAKO BAIMENAK EMATEKO IRIZPIDEEN ARTEAN, ZEIN DA  
LEHENESTEN DENA?**

- 65a) Langilea eta administrazioa lotzen dituen harreman-mota.
- 65b) Administrazio atalaren tipologia.
- 65c) Lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
- 65d) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasuna.

**66 EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ARABERA, EUSKARAREN  
ERABILERA SUSTATZEKO, KIROLAREN ARLOAN:**

- 66a) Begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien kirol-formakuntzarako etxeetan euskarazko gaiak gehitu behar dira urtez urte.
- 66b) Arlo guztiak batera hartu ordez, lehentasun estrategikoak markatu behar dira, begirale eta arbitroen kirol-formakuntzan indar eginez.
- 66c) Arlo guztiak batera hartu ordez, lehentasun estrategikoak markatu behar dira, irakasle eta prestatzaileen kirol-formakuntzan indar eginez.
- 66d) Arlo guztiak batera hartu ordez, lehentasun estrategikoak markatu behar dira, prestatzaile eta arbitroen kirol-formakuntzan indar eginez.

**67 PERTSONA HELDUEI EUSKARA IRAKASTEN DIEN IRAKASLE BATENTZAKO, ZER  
DIRA ATAZAK?**

- 67a) Eskolaz kanpo egiteko lanak dira, batez ere etxeko lanak
- 67b) Ikasleek urrats bakoitzean egiten dituzten idazlanen bildumak dira. Irakasleak urratsaren ebaluazioan idazmena ebaluatzeko erabiltzen ditu
- 67c) Ikasle bakoitzari egokitutako entzutezko ariketak dira, irakasleak prestatu eta ikasleek grabatuak
- 67d) Irakasleak bizitza errealean hizkuntzarekin egin beharko dituen antzeko gauzak dira. Irakasleak hauen inguruan ardatzen du programazioa

**68 86/97 DEKRETUAK EZARTZEN DUENAREN ARABERA, HONAKO HERRI-LANGILEAK  
HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZETIK SALBUETSITA GERA DAITEZKE:**

- 68a) 45 urtetik gora dutenak, baldin eta minusbaliotasun fisiko edo psikikorik badute
- 68b) Salbuetsita daude ezindu fisiko edo psikologikoak oinarrizko ikasketarik ez badute
- 68c) Euskara ikasteko eragozpenak edo zailtasunak eragiten dieten minusbaliotasun fisiko edo psikologikoak dituztenak
- 68d) Bakarrik salbuesten dira oinarrizko ikasketarik ez dutenak 45 urtetik gora dutelako

**69 70. HAMARKADAN EUSKARA IKASTEKO "HITZ EGIN" METODO EZAGUNA  
PLAZARATU ZEN. ZEIN ERAKUNDEK EMAN ZUEN ARGITARA?**

- 69a) Euskaltzaindiak
- 69b) AEK-K
- 69c) Goierriko euskal eskolak
- 69d) Eusko Kontseiluak

**70 EUSKARARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982), INTERESDUNAK ESKA DEZAKE JAKINARAZPENA HIZKUNTZA BAKARREAN EGIN DIEZAIOTEN:**

- 70a) Euskal Autonomia Erkidegoan ez behintzat, izan ere derrigorrez elebiduna izan behar baita.
- 70b) Bai, eska dezake, baldin eta hautatzen duen hizkuntza hori ofiziala bada.
- 70c) Auskalo, jurisprudentzia ez baita batere argia gai honi dagokionez.
- 70d) Gai hau gure ordenamendu juridikoan ez dago arauturik.

**71 HUTSUNEA BETE EZAZU: EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (...) ZEHAZTUKO DITU:**

- 71a) Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren proposamenez, Eusko Jaurlaritzak.
- 71b) Eusko Jaurlaritzaren gomendioz, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak.
- 71c) Eusko Jaurlaritzaren baimenarekin, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
- 71d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen proposamenez, Eusko Jaurlaritzak.

**72 GURASO ETA BESTE IRAKASLEEKIN, HIZKUNTZA-MAILA EGOKIAN, NAHIZ ETA HIZKUNTZA TEKNIKOA EZ IZAN, EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAI DEN IRAKASLEAK, ZEIN HIZKUNTZA-ESKAKIZUN BEHAR DU?:**

- 72a) 1. hizkuntza-eskakizuna.
- 72b) 2. hizkuntza-eskakizuna.
- 72c) 3. hizkuntza-eskakizuna.
- 72d) 4. hizkuntza-eskakizuna.

**73 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, DERRIGORREZKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DUTEN DOTAZIOETAN, HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAREN DERRIGORTASUN- DATA FINKATUKO DA:**

- 73a) Dotazio horien titularrek denbora horretan benetan maila horretara heltzeko modurik badutela kontuan izan gabe.
- 73b) Dotazio horien titularrek denbora horretan benetan maila horretara heltzeko modurik eduki dezatela kontuan hartuz.
- 73c) Dotazio horien titularrek, gaztelera ez ezik, ezagutzen dituzten gainontzeko hizkuntzak ere kontuan hartuz.
- 73d) Dotazio horien titularrek familia-arloan dituzten zamak bereziki kontuan hartuz.

**74 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAREN EGIAZTAPENAZ SALBUETSITA DAUDEN ERTZAINAK:**

- 74a) Edozein lanpostu bete ahal izateko horniketan aurkez daitezke.
- 74b) Soilik aurkez daitezke lanpostu bat bete ahal izateko horniketan, lanpostu horrek ez badu derrigortasun-datarik.
- 74c) Soilik aurkez daitezke lanpostu bat bete ahal izateko horniketan, lanpostu horrek ez badu hizkuntza-eskakizunik.
- 74d) Soilik aurkez daitezke edozein lanpostu bete ahal izateko horniketan, lanpostu horrek aurretik betetzen zuten lanpostuaren ezaugarri berberak baditu.

**75 2001EKO BIZTANLERIAREN ZENTSUAREN ARABERA, 5 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN ARTEAN, EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO EUSKALDUN BERRIAK...**

- 75a) %18,2 dira.
- 75b) %30 dira.
- 75c) %10,9 dira.
- 75d) %40 dira.

- 76 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANEAN, HIZKUNTZEN ERABILERARAKO JARRAIBIDEEN ETA ITZULPEN-IRIZPIDEEN ARTEKO LOTURA ERA HONETAKOA DA:**
- 76a) Jaurlaritzako itzulpen-politikaren ondorioz ezarri dira hizkuntzen erabilerarako jarraibideak.
  - 76b) Itzulpen-politika eta hizkuntzen erabilerarako jarraibideen artean ez dago loturarik.
  - 76c) Hizkuntzen erabilerarako jarraibideak betetzen lagunduko dute itzulpen-irizpide osagarriek.
  - 76d) Herritarrekiko eta beste administrazioekiko harremanetan bakarrik arautzen dira itzulpenak.
- 77 EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ARABERA, CORPUS PLANGINTZARI DAGOKIONEZ:**
- 77a) Euskalki literarioak landu beharko lituzkete ikasleek.
  - 77b) Batez ere azken 30 urteetako idazlan eredugarriak landu beharko lituzkete ikasleek.
  - 77c) Euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak eta erregistro diferenteen ereduak irakatsi behar zaizkie ikasleei.
  - 77d) Euskara batuko arauak landu beharko lituzkete batik bat ikasleek.
- 78 ZER DA HEOK?**
- 78a) Hizkuntza Estandarizazioaren Ordezkatze Kulturala
  - 78b) Hizkuntza Ereduaren Oreka Komunikatiboa
  - 78c) Hizkuntzaren Erabileraren Oinarrizko Kalkulua
  - 78d) Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua
- 79 TOKI-ADMINISTRAZIOETAKO LANGILEEN HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BIDERATZEKO**
- 79a) Toki-administrazio bakoitzak hitzarmena egin behar du bere udal-euskaltegiarekin
  - 79b) Toki-administrazio bakoitzak bere eskualdeko beste udalekin egiten du hitzarmena
  - 79c) Toki-administrazio bakoitzak bere udal-euskaltegian eskolaratu behar ditu langileak
  - 79d) Toki-administrazio bakoitzak IVAPekin egiten du hitzarmena
- 80 IKASLEAK DAGOENENKO DUEN KONTZEPTU-EGITURAREKIN ERLAZIONA DAITEKEEN IKASKUNTZA DA, ...**
- 80a) Ikaskuntza estrukturala
  - 80b) Ikaskuntza esanahiduna
  - 80c) Aurkikuntzazko ikastea
  - 80d) Ikaskuntza mekanikoa
- 81 EUSKARARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982), EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOEK ERABILI BEHARREKO INPRIMAKIAK:**
- 81a) Elebitan egon behar dira.
  - 81b) Euskara hutsean egon daitezke.
  - 81c) Gazteleraz bakarrik egon daitezke.
  - 81d) Euskarari buruzko Legeak ez du gai hau arautzen.

- 82 EGIA DA: EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEGOA:**
- 82a) Lehiaketa bidez hautatuko dela, lan-kontratu bidezko langilegoa salbu, azken hau oposizio bidez aukeratuko baita.
- 82b) Oposaketa bidez hautatuko dela, lan-kontratu bidezko langilegoa salbu, azken hau lehiaketa-oposizio bidez aukeratuko baita.
- 82c) Hots, funtzionarioak nahiz lan-kontratu bidezko langilegoa, oposizio, lehiaketa edo lehiaketa oposizio bidez hautatuko dela.
- 82d) Hots, funtzionarioak nahiz lan-kontratu bidezko langilegoa, oposizio, lehiaketa edo izendapenaske bidez hautatuko dela.
- 83 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, HAUTAPENEAN 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DERRIGORREZKOA EZ DENEAN, FUNTZIO PUBLIKORA SARTZEKO PROBETAN EUSKARA MEREZIMENDU GISA BALORATUKO DA, GEHIENEZ, GUZTIRA LOR DAITEZKEEN PUNTUEN:**
- 83a) %5ekin.
- 83b) %10ekin.
- 83c) %15ekin.
- 83d) %20rekin.
- 84 III. SOZIOLINGUISTIKAKO MAPAREN ARABERA, GIPUZKOAN, EUSKALDUN ZAHARRAK...**
- 84a) %35,7 dira.
- 84b) %48,2 dira.
- 84c) %71,9 dira.
- 84d) %21,1 dira.
- 85 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANEAN EREMU DESBERDINETARAKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK AIPATZEN DIRA. ONDORENGO IRIZPIDEOTATIK, ZEIN EZ DA AIPATZEN PLAN HORRETAN?**
- 85a) Kontratazio administratiboetarako hizkuntza-irizpideak.
- 85b) Argitalpenetarako hizkuntza-irizpideak.
- 85c) Administrazioaren irudirako hizkuntza-irizpideak.
- 85d) Programa informatikoen erabilerarako hizkuntza-irizpideak.
- 86 EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN ARABERA, LIBURUGINTZAREN ARLOAN:**
- 86a) Ingurune erdaldunenetan dago hutsunerik handiena.
- 86b) Kioskoan dago hutsunerik handiena.
- 86c) Herri txikietako liburudendetan dago hutsunerik handiena.
- 86d) Erdi-mailako herrietako liburudendetan dago hutsunerik handiena.
- 87 HELDUEN EUSKARAREN IRAKASKUNTZARI GAGOZKIOLA, ZER ESAN NAHI DU EKP SIGLAK?**
- 87a) Euskaltegiaren Kurrikulu Proiektua
- 87b) Euskarazko Kultur Pentsamendua
- 87c) Euskarazko Komunikazio Proiektua
- 87d) Euskaraz Komunikatzeko Plana



- 88 LANGILEEN HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA BIDERATZEKO IVAPEK UDALEI ESKAINTZEN DIEN HITZARMENAK, BESTEAK BESTE HONAKO ARLOAK BILTZEN DITU:**
- 88a) Hizkuntza-eskakizunen ezarpena eta erabilera-planak
  - 88b) Langileen hizkuntza-prestakuntza eta ordezkapen-dirulaguntzak
  - 88c) Langileen hizkuntza-prestakuntza eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketak
  - 88d) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketak eta ordezkapen-dirulaguntzak
- 89 ERROREEN FOSILIZAZIOAREN KONTZEPTUA HONAKO AUTOREETAKO BATI LOTZEN ZAIO BATIK BAT. ZEINI?**
- 89a) Larry Selinker-i
  - 89b) Rebecca Oxford-i
  - 89c) John Carroll-i
  - 89d) J. Paul Bonckart-i
- 90 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (6/1989), LANPOSTU-ZERRENDEN BIDEZ:**
- 90a) Euskal Administrazio Publikoek euren barne-egiturak arrazionaldu eta ordenatzen dituzte.
  - 90b) Euskal Administrazio Publikoek dagokion ekitaldian aurrekontuko diruz hornitu ezin diren lanpostuen kopurua zehazten dute.
  - 90c) Lanpostuak gordetzen dira, karrerako funtzionario nahiz lan-kontratu bidezko langilegoak barne-mailan igo ahal izateko.
  - 90d) Aurrekontuko diruz hornitutako lanpostu huts guztiak aditzera ematen dira.
- 91 III. SOZIOLINGUISTIKAKO MAPA EGITEAN, ERABIL INDIZEA EZAGUTZEKO, HIRU HIZKUNTZA ALDAGAI GURUTZATU DIRA:**
- 91a) Hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza.
  - 91b) Ama-hizkuntza, ikasketetako hizkuntza eta etxeko hizkuntza.
  - 91c) Hizkuntza-gaitasuna, ikasketetako hizkuntza eta etxeko hizkuntza.
  - 91d) Ama-hizkuntza, euskalduntze-maila eta hizkuntza-gaitasuna.
- 92 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANAK HIZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIEN EGINKIZUNAK ZEHAZTEN DITU. ONDORENGOETATIK, ZEIN EZ DA TEKNIKARI HORREN EGINKIZUN?**
- 92a) 4HE lortzeko eskolak prestatu eta ematea.
  - 92b) Bideragarritasun-txostenaren proposamena egitea.
  - 92c) Normalkuntza-ekintzak diseinatu eta betearaztea.
  - 92d) Helburuen betetze-mailaren jarraipena egitea.
- 93 HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN "PORTFOLIOA" HITZA ENTZUTEN DUGUNEAN ZERTAZ ARI GARA?**
- 93a) Idazmena lantzeko ariketa-mota batez
  - 93b) Ebaluazio-teknika batez
  - 93c) Mintzamina lantzeko rol-joko ezagun batez
  - 93d) Hizkuntzaren formaz arretatzeko baliabide-multzo batez

**94 UDAL BATEKO LANGILE BATEK 2HE LORTU BEHAR DU. ZER AURREIKUSPEN EGIN BEHARKO LUKE UDALAK LANGILEAREN PRESTAKUNTZARI DAGOKIONEZ?**

- 94a) 2HE lortzeko nahikoa du bere lanpostuan esaten diren hitzik erabilienak ezagututa
- 94b) Lehenik eta behin, bere harreman-sarea euskalduntzen saiatu behar du, berak ere euskaraz hitz egin ahal izateko.
- 94c) Behintzat 108 edo 109 urratsa gainditu bitartean euskara ikasten aritu beharko luke langileak
- 94d) Oso garrantzitsua da telefonoa hartzean solaskidearen hizkuntzan erantzutea norberaren euskara-maila hobetzeko

**95 BI FUNTZIO NAGUSI ESLEITZEN ZAIZKIO, ORO HAR, EBALUAZIOARI: FORMATIBOA ETA...**

- 95a) Arautzailea
- 95b) Kredentzialista
- 95c) Sumatiboa
- 95d) Banatzailea

**96 ERTZAINZAKO FUNTZIONARIOENTZAT HIZKUNTZA-GAITASUNERAKO JARDUERA-PROGRAMAZIOA EGINGO DU:**

- 96a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.
- 96b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
- 96c) HABEk.
- 96d) Euskadiko Poliziako ikastegiak.

**97 III. SOZIOLINGUISTIKAKO MAPAREN ARABERA, HIZKUNTZAREN TRANSMISIOARI DAGOKIONEZ, AITAK ETA AMAK EUSKARAZ ZEKITENEAN, HONELA TRANSMITITU DIETE EUSKARA SEME-ALABEI:**

- 97a) EAEn %90ek, Nafarroan %75ek eta Iparraldean %65ek.
- 97b) EAEn %88k, Nafarroan %65ek eta Iparraldean %75ek.
- 97c) EAEn %86k, Nafarroan %76k eta Iparraldean %52k.
- 97d) EAEn %87k, Nafarroan %73k eta Iparraldean %64k.

**98 ZEIN AUTORE ERLAZIONATZEN AHAL DUGU HIZKUNTZA ESKURATZEKO MEKANISMOA EDO "LANGUAGE ACQUISITION DEVICE" (LAD) DELAKOAREKIN?**

- 98a) N. Chomsky
- 98b) Ferguson
- 98c) J. Lyons
- 98d) Harris

**99 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEA. ZERTAN DATZA EKINTZA POSITIBOA DERITZON PRINTZIOIA?**

- 99a) Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzean, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatuz.
- 99b) Emakumeek eta gizonak eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzean.
- 99c) Ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiaraztean bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeke edo murrizteko Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**100 ZEIN PRINTZIOIARI DAGOKIO ONDOKO DEFINIZIOA?: EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERA, BALDINTZA, JOMUGA ETA BEHARRIZAN EZBERDINAK MODU SISTEMATIKOAN KONTSIDERATZEA, ETA, HORRETARAKO, POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIAN, MAILA GUZTIAN ETA HORIEN PLANGINTZA-, EGIKARITZE- ETA EBALUAZIO-FASE GUZTIAN, EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO XEDEA DUTEN HELBURU ETA JARDUKETA ZEHATZAK TXERTATZEA.**

- 100a) Aukera-berdintasuna.
- 100b) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
- 100c) Tratu berdina.
- 100d) Definizioa ez dagokio aurreko printzipio bati ere.

**ORDEZKO GALDERAK**

**101 67/2003 DEKRETUAREN ARABERA, OSAKIDETZAN EUSKARA NORMALIZATZEKO PROZESUAK HIRU ESPARRU DITU:**

- 101a) Medikuntza orokorra, Haur-atentzioa eta Etengabeko atentzio guneak
- 101b) Lehen mailako atentzioa, Atentzio espezializatua eta Administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu orokorrak
- 101c) Zerbitzu orokorrak, Bezeroak atenditzeko guneak eta Haur-atentzioa
- 101d) Lehen mailako atentzioa, Bigarren mailako atentzioa eta Hirugarren mailako atentzioa

**102 III. SOZIOLINGUISTIKAKO MAPAREN ARABERA, BIZKAIAN, EUSKALDUN ZAHARRAK...**

- 102a) %43,5 dira.
- 102b) %12,1 dira.
- 102c) %25,3 dira.
- 102d) %67,6 dira.

**103 EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA PLANAREN TESTUINGURUAN, SAILEKO HIZKUNTZA-NORMALKUNTZAREN TEKNIKARIA ZEIN JARRAIPIEN-BATZORDEAN KOKATZEN DA?**

- 103a) Sailaren Jarraipen Batzordean eta Jaurlaritzako Jarraipen Batzordean.
- 103b) Jaurlaritzako Jarraipen Batzordean.
- 103c) Sailaren Jarraipen Batzordean.
- 103d) Ez dago aurreikusita Jarraipen Batzordeetan zuzenean parte hartzea.

- 104 HUTSUNEA BETE EZAZU: EUSKARARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA (10/1982), EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOAN TOKI-IZENEN IZEN OFIZIALA FINKATZEKO UNEAN AUZIREN BAT SORTZEN BADA UDALEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEAN, AIPATU AUZIA (...) EBATZIKO DU.**
- 104a) Euskaltzaindiak.
  - 104b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak.
  - 104c) Arartekoak.
  - 104d) Eusko Jaurlaritzak.
- 105 67/2003 DEKRETUAREN ARABERA, ZERBITZU ELEBIDUNAK ESKAINI BEHAR DITUZTEN OSAKIDETZAKO LEHEN MAILAKO ETA ATENTZIO ESPEZIALIZATUKO UNITATEETAN...**
- 105a) Gutxienez efektiboen %80k derrigortasun-data ezarrita eduki behar dute
  - 105b) Gutxienez efektiboen %80k dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan behar dute
  - 105c) Efektibo guztiek egiaztatuta izan behar dute dagokien hizkuntza-eskakizuna, edo beheragokoa
  - 105d) Helburua izango da efektiboen %80k 2. hizkuntza-eskakizuna izatea
- 106 EGA-REN BALIOKIDETZAK FINKATZEN DITUEN 263/1998 DEKRETUAREN ARABERA, GARAI BATEKO IGA, GUMA ETA EIT**
- 106a) EGAREN baliokide gisa aipatzen dira Dekretuaren xedapen-zatian
  - 106b) Ez dira Dekretuaren xedapen-zatian aipatzen
  - 106c) Arautzen dira Dekretuaren xedapen-zatian
  - 106d) Euskarazko irakasle-tituluen artean aipatzen dira
- 107 67/2003 DEKRETUAREN ARABERA, OSAKIDETZAKO LANPOSTU FUNTZIONALEI HIZKUNTZA-ESKAKIZUN HAUEK EZARRIKO ZAIZKIE:**
- 107a) 1. edo 2. hizkuntza-eskakizuna lanpostu guztiei
  - 107b) 1. edo 2. hizkuntza-eskakizuna C taldeko lanpostuei
  - 107c) 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna A taldeko lanpostuei
  - 107d) 1. hizkuntza-eskakizuna E edo D taldeko lanpostuei
- 108 86/1997 DEKRETUAREN ARABERA, ZEIN DA ADMINISTRAZIOKO 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAREN BALIOKIDE?**
- 108a) Hezkuntza sistemako 1. hizkuntza-eskakizuna
  - 108b) Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskarako 3. maila
  - 108c) Irakasleen 2. hizkuntza-eskakizuna
  - 108d) Euskalduntze-programaren 8.urratsa.
- 109 4/2005 LEGEAREN ONDOREETARAKO, PERTSONA ANITZEKO ADMINISTRAZIO-ORGANOETAN, ZER JOTZEN DA ORDEZKARITZA OREKATUTZAT?**
- 109a) Sexu biek, gutxienez %40ko ordezkari-tza dutenean.
  - 109b) Sexu biek, gutxienez %45eko ordezkari-tza dutenean
  - 109c) Sexu biek %50 ordezkari-tza dutenean
  - 109d) Sexu biek, gutxienez %30eko ordezkari-tza dutenean

**110 ONDOKOEN ARTEAN, ZEIN EZ DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUTEN PRINTZPIO OROKORRETAKO BAT?**

- 110a) Tratu berdina.
- 110b) Aukera-berdintasuna.
- 110c) Ekintza positiboa.
- 110d) Emakumearen aldeko bereizkeria.